



MARTXOAK 25, DATORREN OSTEGUN FEDERALISTA

Datorren ostegunean, hilaren 25ean, 18:30ean, beste topaketa bat egingo dugu gure Ostegun Federalen barruan. Oraingo honetan, **Alberto Lopez Basagurenek Manuel Cruz Rodriguez senatari eta ganberako presidente ohiaren arteko elkarrizketa izango da ardatz nagusia, "Proposamen federala eta politikaren duintasuna" izenburupean.** Beti bezala, ekitaldia zuzenean emango du [gure kateak](#) You Tuben eta bertan parte hartu ahal izango da txataren bidez.

EUSKAL HERRIKO FEDERALISTEN III. BATZAR NAGUSIAREN ETA EZOHIKO BATZARRAREN AKTAREN LABURPENA

Martxoaren 4an, Euskadiko Federalisten III. Batzar Nagusia egin zen, 2020ko urteari dagokiona, 35 partaiderekin. Internet bidez egin zen, Lurdes Auzmendi izan zuen buru, eta Josu Ugarte aritu zen idazkari lanetan. Pilar Pérez-Fuentes presidenteordeak eta Manu Ibañez de Aldecoa diruzainak lagundu zieten mahai birtualean.

AGURRA ETA III. OHIKO BATZARREKO GAI-ZERRENDA AURKEZPENA

Presidenteak batzar orokorrari hasiera eman zion, Covid-19-pandemia dela-eta pertsona askok jasandako egoera zailagatik elkartasuna adieraziz eta Zubi gure adiskidea gogoratu (urriaren 13an zendu zen). Horren ostean, gai-zerrenda aurkeztu zuen:

1. 2020ko Jardueren balantzea aurkezpena.
2. 2021rako Jarduera-plana aurkezpena eta onarpena
3. "Balantze ekonomikoa, 2020" eta "Aurrekontu ekonomikoa, 2021" aurkezpena eta onarpena.
4. Egoera politikoari buruzko eztabaida.
5. Egungo zuzendaritza-batzordearen berrespina, elkarte berria eratu arteko trantsizio-aldirako.
6. Galderak eta eskaerak.

2020KO JARDUEREN BALANTZEA - AURKEZPENA ETA ONARPENA

Lurdes Auzmendik gogora ekarri zituen elkarteak iaz egindako eta gure webgunean jasota dauden jarduera publikoak, bai eta Espainia Federalaren Aldeko Elkartearekiko etengabeko harremanak ere, erakunde hori indartzeko; UEF-Euskadirekin lan sistematikoa eta sarean dugun presentzia nabarmen hobetzea, eduki zabal eta eguneratuekin hiru atari desberdinetan: federalistak.es (gaztelaniaz), federalistak.eus (euskaraz) eta federalistak.org (barnerako). Era berean, You Tuben www.youtube.com/c/Euskalfederalistak kanala (oraindik harpidetu ez bazara, horretara gonbidatzen zaitugu), twitter [federalista \(@federalistak\)](https://twitter.com/federalistak) edo hau bezalako newsletterrak gogorarazi zituen, besteak beste.

2021EKO JARDUERA-PLANA - AURKEZPENA ETA ONARPENA

2021eko Jarduera-planari dagokionez, Josu Ugartek programatutako jardueren berri eman zuen, eta haien ezaugarriak azaldu zituen, besteak beste "Elkarrizketa Federalak" izenburupean bildutako ekitaldi sorta. Horien helburua bikoitza da: Espainiarentzat eredu federalari buruz hausnartzea, eta Europari buruzko eztabaida, hori ere ikuspegi federal batetik. Era berean, beste dibulgazio-jarduera batzuk eta hainbat argitalpenen edizioa planteatu ziren.

• **Proposamenaren aldeko 31 botorekin, aurkako botorik gabe eta abstentzio batekin onartu egin zen.**

2020KO BALANTZE EKONOMIKOA ETA 2021ERAKO AURREKONTU EKONOMIKOA

Manu Ibañez de Aldecoa diruzainak 2020ko balantze ekonomikoa zehaztu zuen.

Diru-sarreraren banaketa 2020an (eurotan)

Kuotak	7.490,00
Beste diru-sarrerak	0,00
Diru-sarrera guztiak	7.490,00

Gastuen banaketa 2020an (eurotan)

Web zerbitzuak	198,31
Zoom kuota	175,78
Por una España Federal Elkartearen kuota	1.201,00
Nafarroako Filmoteka	146,20
Kartelak	120,99
Bidesarien eta aparkalekuen gastuak	46,70
Banku gastuak	194,99
Gastu guztiak	2.083,97

2019ko ekitaldiari dagokionez, diru-sarrerak %143,65 igo dira eta gastuak %53,79 murriztu. 2021eko kuoten kobrantza elkarte berria eratu arte atzeratuko da. Gainera, Elkarateak Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkeztu ditu, epearen barruan, 2019ko ekitaldiari dagozkion akta-eta kontu-liburuak eta erregistroa, araudiak ezartzen duen bezala. Gaur egun, 184 pertsona gaude Elkartearen (%30 emakumeak dira eta %70 gizonak). Denbora zehaztugabe batez, webgunearen bidezko loturaren atalak ez du funtzionatu (gu ohartu gabe), baina dagoeneko zuzenduta dago.

- **Bozketa egin ondoren, balantzea aho batez onartu zen.**

2021erako aurrekontu ekonomikoari dagokionez, argitu behar da aurkeztutako zifrak gutxi gorabeherakoak direla eta ez direla lotesleak, eta behin-behineko izaera dutela elkarte berria eratu arte, azken horrek berriro egokitu beharko baititu. Oraingoz, diru-sarrera gehienak kuotetatik eratorritakoen arabera izango dira. Pandemia amaitzen bada, partida txiki bat aurreikusitako kostu txikiko ekintza presentzial batzuetarako. Etabaidaren ondoren, bi argitalpen argitaratzeko partida bat gehitu zen. Halaber, Elkartearen eta federalismoa sustatzeko komunikazio-agentzia bat kontratatzekeo partida bat aurrekontuan sartzea erabaki zen.

2021erako zenbatetsitako diru-sarreraren banakapena (eurotan)

Kuota arruntak (50 euro)	7.500,00
Gutxienerako kuotak (10 euro)	40,00
Laguntza-kuotak	200,00
Aparteko kuotak	350,00
Elkartekide berriak	300,00
Ekitaldi publikoetan bildutakoa	200,00
Diru-laguntzak eta antzekoak	Zehaztu gabe
2021erako diru sarrera guztiak	8.590,00

2021erako zenbatetsitako gastuen banaketa (eurotan)

Gastu arruntak	
Web zerbitzuak	200,00
Zoom kuota	270,00
Banku gastuak	200,00
Por una España Federal Elkarterakoa	1.200,00
1. Kapitulumua guztira-Gastu arruntak	1.870,00
Ekitaldi publikoak	
Argitalpenaren gastuak	3.110,00
Komunikazio-plana	1.500,00
Lau ekitaldi (gastu baxukoak)	2.000,00
2. kapitulumua guztira-Ekitaldi publikoak	6.610,00
2021erako gastu estimatu guztiak	8.480,00

- **Bozketa egin ondoren, aurrekontua aho batez onartu zen.**

EGOERA POLITIKOARI BURUZKO EZTABAIDA

Eztabaidaren ondorioz, newsletter honetan islatzeko zailak diren hamar bat esku-hartze egon ziren. Oro har, egoeraren analisiak eta gogoeta- eta lan-proposamenak egin zituzten, gure hurbileko ekintzetan sartuko direnak. Azkenik, Lurdes Auzmendik jakinarazi zuen *Por una España Federal* Elkarteak Espainiako federalismoari buruzko oinarritzko dokumentu bat egiteko asmoa duela, erakundeak bere batzarrean onar dezan.

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BERRESPENA

Pilar Pérez Fuentes presidenteordeak proposatu zuen, maiatzean elkarte berria eratu arteko trantsizio fasean eta dagokion batzarrean, gure egungo Zuzendaritza Batzordea bere karguekin mantentzea. Horrez gain, UEF-Euskadiko Zuzendaritza Kontseiluko kideak ere batuko dira.

- **Aho batez onartu zen.**

IRADOKIZUNAK, GALDERAK ETA EKITALDIAREN AMAIERA

Josu Ugartek planteatu zuen "urteko plan estrategikoa" definitzea (helburu nagusiak eta urte bakoitzerako lan-ardatzak) eta "partaidetzarako barne-araudia" egitea (elkartearen jarduera arautzeko eta eraginkorragoa izateko). Beste galderarik eta eskaerarik gabe, presidenteak III. Batzarrari amaiera eman zion.

EZOHIKO BATZARRA

Ohiko Batzarra amaitu eta berehala, aurreko bilerako Mahaiarekin eta era birtualean ere Ezohiko Batzarra egin zen, modu birtualean eta elkartearen estatutuen arabera. Presidenteak batzar orokorra ireki zuen hitzaldi labur batekin, eta honako gai-zerrenda proposatu zuen:

1. UEF Euskadirekin bat egiteko prozesuaren aurkezpena eta onarpena.
2. Elkartearen estatutu berriak - aurkezpena eta onarpena.
3. Galderak eta eskaerak.

UEF EUSKADIREKIN BAT EGITEKO PROZESUA AURKEZTEA ETA ONARTZEA

Ezohiko Batzarraren lehen puntuari dagokionez, Luis Miguel Parizak bi elkarteak bat egiteari begira gure elkarteak UEF-Euskadirekin izandako bileren eta lankidetzaren berri eman zuen, ideia federala euskal iritzi publikoan zabaltzeko eta federalismoari Espainian eta Europan egiten dion ekarpena indartzeko. Gainera, jakinarazi zuen UEF-Euskadiren Batzar Nagusiak, martxoaren 2an, gure elkartearekin bat egitea onartu zuela. Batzarraren berri izan ondoren, UEF Euskadirekin bat egiteko akordioa bozkatu zen (elkarteko kide guztiei bidalitako akordio-proposamena).

- **Onartu egin zen aldeko 25 botorekin, aurkako botorik gabe eta abstentzio batekin.**

ELKARTEAREN ESTATUTU BERRIAK - AURKEZPENA ETA ONARPENA

Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez, Alberto López Basagurennek labur-labur azaldu zuen bat-egite prozesurako prestatutako elkarte berriaren estatutuen proposamena (batzarraren deialdiari erantsi zitzaizkion).

- **Onartu egin zen aldeko 27 botorekin, aurkako botorik gabe eta bi abstentziorekin.**

IRADOKIZUNAK, GALDERAK ETA EKITALDIAREN AMAIERA

Azken atalean, Luis Miguel Parizak proposatu zuen elkarte berriak egin beharreko lehen jardueretako bat ikuspegi federal batetik Europari buruzko eztabaida bat izatea, Europako erakundeek deituko duten Europaren etorkizunari buruzko Konferentziaren esparruan. Konferentzia horretara gonbidatuta daude gobernuak eta parlamentuak, baina baita gizarte zibileko erakundeak ere. Proposamen horren ondoren, Lurdes Auzmendik amaiera eman zion batzarrari.

Ondo izan, eta gogoratu: twitterren ([@federalistak](https://twitter.com/federalistak)) eta sarean (www.federalistak.eus) ere topatuko gaituzu!